

# 6

DEBEKUA

**U N I T A T E A**

PROHIBICION

## HELBURUA

Bezeroei debekatuta dauden Ekintzak jakinaraztea.

## OBJETIVO

Informar al cliente sobre las actividades que están prohibidas.

6.1. Elkarrizketa

6.2. Ariketak

6.3. Azalpenak

6.4. Hiztegia

6.5. Errepasoa

6.6. Badakizu?

6.7. Erantzunak

6.1. Diálogo

6.2. Ejercicios

6.3. Explicaciones

6.4. Diccionario

6.5. Repaso

6.6. ¿Sabías que...?

6.7. Soluciones

### 6.1. Elkarrizketa



*Komiki honetako elkarrizketa CDan grabatuta izango duzu. Entzun eta ikasi.  
Audio-pasartea: CDaren 9. pista.*

GOIZA DA. ANDERREK TXAKURRA PASEATZERA  
ATERA DU, ETA TABERNAN SARTU DA.



**Ander:** *Egun on!*

**Tabernaria:** *Baita zuri ere!*

**Ander:** *Ebaki bat jarriko didazu?*

**Tabernaria:** *Bai. Barkatu, baina hemen ezin da txakurrarekin sartu.*



**Ander:** *A, ez?*

**Tabernaria:** *Ez, hor jartzen du: "animaliekin sartzea debekatuta dago".*

**Ander:** *Barkatu, ez naiz konturatu!*

*Kanpoan lotu beharko dut.*

**Tabernaria:** *Bai, eskerrik asko.*

## 6.1. Diálogo



El diálogo de estas viñetas lo tienes grabado en el CD. Escucha y apréndelo.  
Audio: Pista 9 CD.

ES LA MAÑANA. ANDER HA SACADO A PASEAR AL PERRO Y HA ENTRADO EN EL BAR.




Ander: ¡Buenos días!

Camarera: ¡Igualmente!

Ander: ¿Me pones un cortado?

Camarera: Sí. Oye, perdona, aquí no se puede entrar con el perro.



Ander: ¿Ah, no?

Camarera: No, mira: "está prohibido entrar con animales".

Ander: Perdona, no me había dado cuenta.

Lo ataré fuera.

Camarera: Sí, gracias.

## 6.2. Ariketak • Ejercicios

## 1. Ariketa



Elkarrizketa CDan entzuten duzun bitartean, ordenatu esaldiak:  
**Mientras escuchas el diálogo en el CD, ordena las frases**


*Audio-pasartea: CDaren 9. pista / Audio: Pista 9 CD.*

- Baita zuri ere!
- Bai. Barkatu, baina hemen ezin da txakurrarekin sartu.
- Egun on!
- Ebaki bat jarriko didazu?
- Barkatu, ez naiz konturatu! Kanpoan lotu beharko dut.
- A, ez?
- Bai, eskerrik asko.
- Ez, hor jartzen du: "animaliekin sartzea debekatuta dago".

## 2. Ariketa

Lotu marrazkiak eta esaldiak.

**Une las frases y los dibujos.**



- a ERRETZEA DEBEKATUTA DAGO.
- b ETXETIK JANARIA EKARTZEA DEBEKATUTA DAGO.
- c TXAKURRAK SARTZEA DEBEKATUTA DAGO.
- d PARETAN KARTELAK ERANSTEA DEBEKATUTA DAGO.

## 6.2. Ariketak • Ejercicios

## 3. Ariketa

Parekatu esanahi bereko esaldiak.



Une las frases que tienen igual significado.

- |                               |   |
|-------------------------------|---|
| 1. Ezin da erre.              | a. Erabiltzea debekatuta dago.          |
| 2. Ezin da erabili.           | b. Erretzea debekatuta dago.            |
| 3. Ezin da animaliarik sartu. | c. Esertzea debekatuta dago.            |
| 4. Ezin da eseri.             | d. Animaliekin sartzea debekatuta dago. |

## 4. Ariketa

Idatzi marrazkietan ikusten duzuna.

Escribe lo que ves en los dibujos.



## 5. Ariketa

Lotu euskaraz eta gaztelaniaz esanahi berdina duten esaldiak.

Une las frases que tienen igual significado en euskera y en castellano.

- |  |                                  |
|--|----------------------------------|
| 1. Txakurra kanpoan utzi beharko duzu. | a. Deberás usar el móvil.        |
| 2. Zigarroa itzali beharko duzu.       | b. Deberás dejar al perro fuera. |
| 3. Mugikorra erabili beharko duzu.     | c. Deberás apagar el cigarro.    |

### 6.3. Azalpenak

#### A. Debekuak adierazteko

Debekuak adierazteko hurrengo egitura hau erabiliko dugu:

DEBEKATUTA + DAGO + (GAUZA) + ADITZA + T(Z)EA

Debekatuta dago txakurrarekin sartzea.

Debekatuta dago pipak jatea.

#### B. Ezin

Gauza bat egitea posible ez dela esateko era asko daude, baina, oraingoz, forma bat besterik ez dugu ikusiko.

Honekin zerbait "ez dela posible" adieraziko dugu.

Ezin da barrura sartu.

Ezin da txakurrarekin sartu.

Egitura: EZIN + DA + GAUZA + ADITZA.

#### C. "Kanpoan utzi beharko dut"

Dakizunez, "behar izan" aditzak "deber" edo "necesitar" esan nahi du.

Bada, "gero" adierazteko "-ko" partikula erantsiko diogu. Gogoratu beste unitate batzuetan: Zer behar duzu?)

Orain: Txakurra kanpoan utzi **behar** dut.

Gero: Txakurra kanpoan utzi **beharko** dut.

#### C. Kontuz ordenarekin!

Konturatuko zinen bezala, euskarazko esaldietan ordena oso inportantea da, eta gehienetan ez du zerikusirik izaten erdarazko esaldiekin.

Adibidez:

**Erdaraz:** Deberé dejar el perro fuera.

**Euskaraz:** Txakurra kanpoan utzi beharko dut.

"El perro fuera dejar deberé"

## 6.3. Explicaciones

### A. Para expresar las prohibiciones

Para expresar las prohibiciones utilizaremos la siguiente estructura:

**DEBEKATUTA + DAGO + (OBJEKTUA) + ADITZA + T(Z)EA**

PROHIBIDO + ESTA + (OBJETO)+ VERBO + T(Z)EA

**Debekatuta dago txakurrarekin sartzea.**

Está prohibido entrar con el perro.

**Debekatuta dago pipak jatea.**

Está prohibido comer pipas.

### B. No poder

Hay formas diferentes de decir si hacer una cosa es posible o no, pero por el momento estudiaremos una de ellas.

**Ezin da barrura sartu.**

No se puede entrar dentro.

**Ezin da txakurrarekin sartu.**

No se puede entrar con el perro.

Estructura: **EZIN + DA + OBJEKTUA + ADITZA**

**NO SE PUEDE + OBJETO + VERBO**

### C. "Deberé dejarlo fuera"

Como ya sabes, el verbo "behar izan" significa "deber" o "necesitar". Para expresar el futuro, le añadiremos la partícula "-KO". (Recuerda otras unidades: Zer behar duzu? ¿Qué necesitas?)

Ahora: **Txakurra kanpoan utzi behar dut.**

Debo dejar el perro fuera.

Luego: **Txakurra kanpoan utzi beharko dut.**

Deberé dejar el perro fuera.

### C. ¡Cuidado con el orden!

Como ya te habrás dado cuenta, el orden de las palabras en las frases en euskera es muy importante, y la mayoría de las veces no tiene nada que ver con el de las frases en castellano.

Ejemplo:

**En castellano:** Deberé dejar el perro fuera.

**En euskera:** **Txakurra kanpoan utzi beharko dut.**

"El perro fuera dejar deberé"

## 6.4. Hiztegia

## Diccionario

**ADITZAK**

Ahal izan  
Atera  
Barkatu  
Begiratu  
Behar  
Egon  
Erabili  
Erantsi  
Erre  
Eseri  
Ezin izan  
Irten  
Itzali  
Jan  
Jarri  
Konturatu  
Lotu  
Piztu  
Sartu

**ESALDIAK**

Ahal da  
Baita zuri ere  
Ez da posible  
Ez naiz konturatu  
Ezin da  
Jartzen du  
Posible da

**VERBOS**

Poder  
Salir; Sacar  
Perdonar  
Mirar  
Deber; Necesitar  
Estar  
Utilizar  
Pegar  
Fumar; Quemar; Asar  
Sentar(se)  
No poder  
Salir  
Apagar  
Comer  
Poner  
Darse cuenta  
Atar  
Encender  
Entrar; Meter(se)

**FRASES**

Se puede  
Igualmente  
No es posible  
No me he dado cuenta  
No se puede  
Pone  
Es posible

## 6.4. Hiztegia

**BESTERIK**

Animalia  
 Arau  
 Ate  
 Azukre  
 Barruan  
 Bezero  
 Debekatuta  
 Debeku  
 Ebaki  
 Esne  
 Goiz  
 Hemen  
 Hor  
 Kafesne  
 Kanpoan  
 Kartel  
 Mugikor  
 Pipak  
 Posible  
 Telefono  
 Txakur  
 Zigarro

## Diccionario

**OTROS**

Animal  
 Regla  
 Puerta  
 Azúcar  
 Dentro  
 Cliente/a  
 Prohibido  
 Prohibición  
 Cortado  
 Leche  
 Mañana  
 Aquí  
 Ahí  
 Café con leche  
 Fuera  
 Cartel  
 Móvil  
 Pipas  
 Posible  
 Teléfono  
 Perro/a  
 Cigarro

## 6.5. Errepasoa • Repaso

### A. Lotu erlazioa duten esaldiak.

Une las frases que tengan relación.

- |   |                                       |
|---|---------------------------------------|
| a. Erretzea debekatuta dago.            | 1. Kalera joan beharko dut.           |
| b. Animaliekin sartzea debekatuta dago. | 2. Zigarroa itzali beharko dut.       |
| c. Ezin da mugikorra erabili.           | 3. Txakurra kanpoan utzi beharko dut. |

### B. Jarri globo bakoitzean dagokion esaldia.

Rellena los globos con las frases correspondientes.



- a. Aizu, hemen debekatuta dago erretzea.  
b. Barkatu, zigarroa itzaliko dut.



- a. Posible da kartela eranstea?  
b. Ez, ezin da erantsi.

## 6.6. Badakizu? • ¿Sabías qué...?

Azeituna hezurak, paperezko serbiletak, txotxak... Hau da kuxidatea! Izan ere, kaleak-eta garbi-garbiak dauden herri batean, harrigarria egiten zaie zenbaiti tabernetako zoruak hain zikinak ikustea. Beste herrialde batzuetan, gaizki ikusita dago horrelako gauzak erabili eta inongo erreparorik gabe lurrera botatzea, ez ordea Euskal Herrian.

Behin baino gehiagotan ikusiko dugu turista dabilena alde guztietara begira eskuan daukan erabilitako serbileta edo txotxa nora bota ez dakiela, zakarrontziaren bila. Arraro samarra egiten da hasieran, eta disimuloz botako duzu, erori izan balitzaizu bezala, baina lasai... Bota ezazu! Inork ez dizu eta ezer esango! Zertarako daude, bestela, erratzak?



Huesos de aceituna, servilletas de papel, palillos... ¡Qué marranada! En efecto, a muchos les sorprende ver los suelos de los bares tan sucios en un lugar donde las calles y demás están tan limpias. En otros países, está mal visto tirar ese tipo de cosas al suelo después de usarlas, pero no en Euskal Herria.

Más de una vez veremos a un turista mirando a todas partes con una servilleta usada o un palillo en la mano, sin saber dónde echarlo, buscando el basurero.

Al principio se hace un poco raro, y lo tirarás con disimulo, como si se te hubiese caído, pero tranquilo/a! ¡Echalo! ¡Nadie te dirá nada! ¿Para qué están si no las escobas?

## 6.7. Erantzunak • Soluciones

1

1. (pág. 84. or.)
2. Baita zuri ere!
4. Bai. Barkatu, baina hemen ezin da txakurrarekin sartu.
1. Egun on!
3. Ebaki bat jarriko al didazu?
7. Barkatu, ez naiz konturatu! Kanpoan lotu beharko dut.
5. A, ez?
8. Bai, eskerrik asko.
6. Ez, hor jartzen du: "animaliekin sartzea debekatuta dago".

5

5. (pág. 85. or.)

1-b / 2-c / 3-a

## ERREPASOA:

- A. (pág. 90. or.)

a-2 / b-3 / c-1

- B. (pág. 90. or.)

2

2. (pág. 84. or.)

1-c / 2-a / 3-b / 4-d

3

3. (pág. 85. or.)

1-b / 2-a / 3-d / 4-c

4

4. (pág. 85. or.)

Perro: txakur  
Fumar: erre  
Prohibido: debekatuta  
Entrar: sartu

